


FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Lau taldekide gara eta elkarren osagarri izanda jarduera asko aurrera eramán ahal izán ditugu. Baina argi dago proiektua biribiltzeko beste sozietate batzuen laguntza behar dela. Gure kasuan, jarraian daudenak izán dira gurekin lan egin duten funtsezko sozietateak.


- Lehenik, **diseinu ingeniari** batekin hitz egin dugu gure asmakizunaren ezaugarriak dituen gailu bat diseina dezán. Gure kasuan, taldekide baten ahizpa da hau, Maialen Agirre. Bera aukeratu dugu gertuko pertsona delako eta beste edozein ingeniari ordaintzea baina merkeago aterako zaigulako, berak ez digu eta diru asko eskatzen. Gailu honek izán behar du:
 - Txikia
 - Eguzki-plakaduna
 - Modem USB zúloduna
 - USB sarreraduna, kablea konektatzeko
 - SIM txartela sartzeko zuloa
 - Kablea: USB sarrera mutur batean eta androiden mobilaren mikro USB sarrera beste muturrean
 - Kolore berdeko LED argia gailua bateria ematen ari den bitartean martxan dagoela erakusteko
 - Kolore gorriko LED argia interneta ematen ari dela erakusteko
 - Atzekaldean logoa eta gailuaren izena

Diseinua hau izango da gutxi gora behera. Gailuaren tamaina eta neurri zehatzak esan bezala diseinu ingeniariak ezarriko ditu:

Aurretik:



Atzetik:



- Ondoren, kontratatua dugun **ingeniari mekanikoari** gailuaren diseinua eta neurriak esan dizkiogu gure gailua muntatu dezan. Hau gutako beste baten anaia da (Iñaki Madina), merkeago egingo digu kostua. Gainera, ibilia da beste gailu batzuk montatzen eta esperientzia horrek konfiantza ematen digu. Materialetan gastatzen duen dirua muntatu ostean ordainduko diogu.
- Jarraian, **paper enpresa** batekin hitz egin eta gure gailuarentzako kaxa bat egiteko eskatu diogu. Enpresa honen izena "Selfpackaging" da. Hau aukeratu dugu merkea delako eta gure behar guztiak betetzen dituelako. Honi ere gailuaren neurriak esango zaizkio. Gure beharrak enpresa honekiko hain zuzen hauek dira:

Kanpotik:

- Gailuaren argazki bat koloretan (esango diegu nolakoa den)
- Gailuaren izena
- Instrukzioak

Barrutik:

- Plastikozko oinarri batean gailua eta kablea
- Donostiako hiriburuan taldekide baten familiakoek **teknologia denda** txiki bat dute. Beraiekin hitz egin dugu gure gailua bertan saltzeko. Hasiera batean emango dizkiegun gailu kopurua txikia izango da (hamar bat), soilik ikusteko jendeak gailuarengan duen erantzuna. Salmentak hemen hastea erabaki

dugu honek aukera ematen digulako jendearen erantzuna gailuarekiko gertutik ezagutzeko. Horrez gain, Donostiako dendari publizitatea egingo diogu eta hori jabearentzat onuragarria da. Elkarlanean arituko gara beraz.

- Bertan salmenta handia badu **multinazional** batekin hitz egingo genuke han ere saldu dezaten eta diru gehiago lortzeko. Multinazionalak izan daitezke adibidez:



- Lankideek Zumarragako ekintzaileentzako eginak dauden lokaletan egingo dugu lan. Sortzen inkubategietan hain zuzen. **Ugassak** (Urola Garaiko Garapen Agentziak) eskaintzen du zerbitzu hau. Bertako zuzendariarekin hitz egin dugu eta hauetako lokal bat alokatuko dugu, tratua jada egina dago. Bertan 30€-gatik internetdun, elektrizitadedun, gasdun.. gela bat edukiko dugu laurontzat. Ordenagailua eraman beharko dugu. Bertan gure funtzioa diru kontuak, publiziterako erabiliko ditugun sare sozialak eta planifikazioa eramateaz gain, ingeniari mekanikoak egingo dizkigun gailuak (berak ekarriko ditu lokalera) paper enpresako kaxetan sartzea izango da gero Donostiako dendara eramateko. Enkarguak ere bertara iritsiko zaizkigu. Gure bulegoa izango da.
- Produktu akatsdunak ingeniari mekanikoarengana zuzenean konpontzera eramateko **banaketa enpresa** bat kontratatu dugu. DHL enpresa gure kasuan. Gerora multinazionalarekin lan egiten badugu, enpresa bera arduratuko da produktuak gure lokaletik bertara eramateaz ere. Garraio enpresa hori aukeratu dugu azkarrak direlako banaketa lanean, bezeroek gailuaren ibilbidea internetez erraz jarrai dezaketelako, eta batez ere merkea delako.
. Bestalde, ezagunenetakoa da eta horrek konfiantza eman digu.
- **Donostiako udalarekin** harremanetan jarri ondoren, bi astetik behin larunbatetan goizeko 11:00etatik 15:00etara Konstituzio plazan egoteko baimena eman digute. Bertan, gure postua jarriko dugu gure Powernet produktua kaleko jendeak ezagutu eta probatu dezaten. Aurrerago xehetasun gehiagoz azalduta dago.

Enpresa hauekin lan egiteak suposatzen duen diru kopurua hasieran egingo dugun inbertsioaren bidez ordainduko dugu. Badakigu hasieran diru irteera garrantzitsua izango dela, baina gailua arrakastatsua dela uste dugu eta aurrera begira merkatuan funtzionatuko duela uste dugu.